## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 151600 LURRALDEARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HIRIGINTZA EKINTZAREN SUSTAPENA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

“Lurraldearen antolakuntza eta hirigintza” programaren xede nagusia da hirigintza ekintza eta lurralde informazioa sustatzea, eta, eraginkortasun handiagoa izan dezan, oinarrizko bi ekintza azpiprogramatan antolatzen da:

1. Lurralde eta kartografia informazioa.

Azpiprograma honek lurralde antolaketako erabakiak hartzeko ezinbestekoa den agiri euskarria osatzen duten elementuak biltzen ditu. Horretarako, etengabe eguneratuta mantendu behar dira Arabako oinarri kartografikoak, horiek zabaltzea sustatzeaz gainera.

Azpiprograma honetan, Arabako Lurralde Historikoko hainbat kartografia lan egin dira. Garrantzitsuenetako bat lurralde osoko 1:5000 eskalako kartografia eta hainbat udalerritako herriguneetako 1:500 eskalako kartografia eguneratzea izan da.

2021ean hasita, eta 2022an eta 2023an jarraipenarekin, 1:500 eskalako kartografia eguneratzeko eta hobetzeko proiektuari ekin zaio, bai eta Iruraiz-Gauna, Guardia, Legutio, Erriberabeitia eta Zigoitia udalerrietako 44 herriguneren datu base geografiko batera (BTU500) bihurtzeko ere.

2022an proiektu berri bati ekin zaio, 1:500 eskalako kartografia eguneratu eta hobetzeko eta datu base geografiko (BTU500) bihurtzeko helburu berarekin jarraitzeko eta zeregin horri Dulantzi, Erriberagoitia eta Aguraingo 32 herrigunetan heltzeko. Proiektu horri jarraipena emango zaio 2023an eta 2024ko zati batean.

Xehetasunezko hiri kartografia hori egiteko, hegaldi fotogrametriko bat egin behar izan da aldez aurretik, bereizmen handiko hiri ortoirudiak ere lortu ahal izateko.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 151600 INFORMACIÓN TERRITORIAL Y FOMENTO ACCIÓN URBANÍSTICA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El objetivo general del programa “Ordenación del Territorio y Urbanismo” es el fomento de la acción urbanística e información territorial, articulándose para mayor operatividad, en dos subprogramas básicos de actuación:

1. Información Territorial y Cartográfica.

Este subprograma recoge los elementos que representan el soporte documental imprescindible para tomar las decisiones de orden territorial. Para ello han de mantenerse actualizadas de manera continua las bases cartográficas de Álava además de fomentarse su difusión.

Con cargo a este subprograma se han realizado diversos trabajos de cartografía del Territorio Histórico de Álava. Entre los más importantes, cabe señalar la actualización de la cartografía de todo el territorio a escala 1:5000 y la cartografía a escala 1:500 de los núcleos urbanos pertenecientes a varios municipios.

Iniciado en 2021 y con continuidad en 2022 y 2023, se ha seguido con el proyecto de actualización y mejora de la cartografía a escala 1:500 y su conversión a una base de datos geográfica (BTU500) de 44 núcleos urbanos pertenecientes a los municipios de Iruraiz-Gauna, Laguardia, Legutio, Ribera Baja y Zigoitia.

Continuando con el mismo objetivo de actualización y mejora de la cartografía a escala 1:500 y su conversión a una base de datos de datos geográfica (BTU500), en 2022 se ha iniciado un nuevo proyecto que se continuará a lo largo de 2023 y parte de 2024, para acometer esta tarea en 32 núcleos urbanos pertenecientes a los municipios de Alegría-Dulantzi, Ribera Alta y Salvatierra.

Para la elaboración de esta cartografía urbana de detalle, ha sido necesaria la realización previa de un vuelo fotogramétrico que permitirá a su vez la obtención de las correspondientes ortoimágenes

Kartografiaren arloan ere nabarmendu behar da, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuarekin batera, koordinazio eta lankidetza proiektu bat egin dela herriguneen kartografia bakarra, homogeneoa eta eguneratua lortzeko, 1:500 eskalan. Horretarako, jarduera protokolo bat ezarri da bi zerbitzuen artean, Katastroan alta emateen zaien eraikuntza berrien balidazio geometrikoa egiteko eta 1:500 eskalako kartografia ofizialean sartzeko.

Horrez gain, lurraldeko 1:5000 eskalako kartografia eguneratu eta hobetu da etengabe, eta lurralde historiko osoa hartzen duen base topografiko harmonizatuan (BTA5000) sartu da. 2022an hasitako proiektu hori 2023an amaituko da.

Lurralde mugapenen arloan, jurisdikzio mugak zehazteko laguntza tekniko eta juridikoa eman zaie udalerri eta kontzejuei. Hainbat espediente izapidetu dira, eta jasotako eskaerei erantzun zaie.

Bestalde, lurralde historikoko kontzeju guztiak mugatu eta mugarritzeko lanekin jarraitu da. Helburu hori lortzeko, hainbat proiektu gauzatu dira. Alde batetik, 2021ean hasitako eta 2022an amaitutako proiektu baten bidez, Gasteizko udalerriko Otobarren, Otogoien, Martioda, Mendotza, Subilla Gasteiz eta Zumeltzuko kontzejuen mugaketa egin da. Halaber, 2022an hasi eta 2023an amaituko da proiektu berri bat Gasteizko udalerriko Andetxa, Berroztegieta eta Eskibel kontzejuak eta Otazako lurraldea mugatzeko.

Halaber, Arabako erpin geodesikoen sarea mantentzeko lanak ere egin dira. Eguraldiaren kariaz eta, batzuetan, gizakiaren egintzaz ere etengabeko narriadura jasaten duten egiturak dira erpin geodesikoak. Horregatik, haiek mantentzeko eta pintatzeko kanpaina bati ekin zaio. Gainera, hedapen didaktikoaren esparruan, eta erpin geodesikoen sare horri balioa emateko asmoz,

urbanas de gran resolución.

También en el ámbito de la cartografía cabe destacar que, junto con el Servicio de Tributos Locales y Catastro, se ha llevado a cabo un proyecto de coordinación y colaboración para la obtención de una cartografía única, homogénea y actualizada de las zonas urbanas a escala 1:500. Para ello se ha establecido un protocolo de actuación entre ambos Servicios para la validación geométrica de las nuevas construcciones que se dan de alta en Catastro y su inclusión en la cartografía oficial escala 1:500.

Asimismo se ha llevado a cabo la actualización y mejora continua de la cartografía a escala 1:5000 del territorio, y su inclusión en la base topográfica armonizada (BTA5000) para toda la superficie del Territorio Histórico de Álava. Este proyecto iniciado en 2022 se finalizará en 2023.

En el ámbito de las demarcaciones territoriales, se ha llevado a cabo la labor de apoyo a municipios y concejos mediante la asistencia técnica y jurídica en la determinación de sus límites jurisdiccionales. Se han tramitado varios expedientes dando respuesta a las solicitudes recibidas.

Por otra parte, se ha continuado con las tareas de deslinde y amojonamiento de todos los concejos del Territorio Histórico. Se han llevado a cabo varios proyectos con este objetivo. Por una parte mediante un proyecto iniciado en 2021 y que ha finalizado en 2022 se ha efectuado el deslinde de los concejos de Hueto Abajo, Hueto Arriba, Martioda, Mendoza, Subijana de Álava y Zumeltzu del municipio de Vitoria-Gasteiz. Asimismo se ha iniciado en 2022 y con fecha de finalización en 2023, un nuevo proyecto para deslindar los concejos de Antezana, Berrostegieta, Eskibel y el territorio de Otaza del municipio de Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, se han llevado a cabo tareas de mantenimiento de la red de vértices geodésicos de Álava. Siendo los vértices geodésicos una estructura que sufre un deterioro continuo por causas meteorológicas y en algunos casos por la acción del hombre, se ha iniciado una campaña de mantenimiento y pintado de los mismos. Además, en el marco de la difusión didáctica y con el objetivo de

argitalpen bat egin da, mendi ibilaldi batzuk jasotzen dituena, erpinak bisitatzea errazten dutenak.

Burgelu, Lapuebla de Labarca eta Mañuetako udalerrietako hiri eremuetako zerbitzu sareen inbentarioa 2021ean hasi eta 2022an amaitu da. Inbentario hori, besteak beste, oinarrizko dokumentazio gisa erabiliko da aipatutako udalerrietako hiri antolamenduko plan orokorrak egiteko.

Bereziki azpimarragarria da 2019an argitaratu zen GeoAraba geoatariaren mantentzea eta hobekuntza. Geoatari korporatiboa da, eta Arabako Foru Aldundiak sortutako informazio geografiko guztia plataforma bakar batean biltzea ahalbidetzen du. Diseinua honela planteatu da: foru sailen eta, oro har, herritarren beharrei zerbitzu emateko moduan.

Nabarmendu behar da GeoAraba diseinatzean errespetatu egin direla hura beste DEA batzuekin elkarreragingarria izatea ahalbidetzen duten estandarrak, erabiltzaile gehiagoren eskura ipintzeko asmotan.

GeoAraba araba.eus web orrian integraturik dago eta, besteak beste, zerbitzu hauek biltzen ditu: nabigatzaile geografiko bat, metadatuen katalogo bat, deskarga arlo bat eta eskaintzen diren zerbitzuak jasotzen dituen orrialde bat.

Proiektu bizia da, etengabe eboluzionatzen ari dena; beraz, 2022an, eta AKSArekin eta aldundiko beste sail batzuekin koordinatuta, plataformaren hobekuntza teknologikoa lortzeko eta sektore anitzeko informazio geografiko berria koordinatu, homogeneizatu eta argitaratzeko lanean jarraitu da.

GeoAraba proiektuari lotuta, zabalkunde kanpaina batekin jarraitu da, plataforma bera eta informazio geografikoa erabiltzaile desberdinei eta askotariko erabileretarako hurbiltzeko.  Horretarako, 2021ean hasitako eta GeoAraba hainbat ikastolatara eraman duen proiektu batekin jarraitu da, ikasleei ezagutza geografikoa eskuratzeko modu berri bat hurbiltzeko



poner en valor esta red de vértices geodésicos, se ha elaborado una publicación que recoge una serie de rutas de senderismo que facilitan la visita a los propios vértices.

Iniciado en 2021, se ha finalizado en 2022 el inventario de las redes de servicio de las zonas urbanas de los municipios de Elburgo, Lapuebla de Labarca y Baños de Ebro. Dicho inventario será empleado entre otros fines, como documentación básica de partida para la elaboración de los Planes Generales de Ordenación Urbana de los municipios citados.

Especialmente reseñable, ha sido el mantenimiento y mejora del geoportal GeoAraba, el cual fue publicado en 2019. Se trata de un geoportal corporativo, que permite aglutinar en una única plataforma toda la información geográfica generada por la Diputación Foral de Álava. Su diseño se plantea de modo que de servicio tanto a las necesidades de los diferentes Departamentos Forales, como a la ciudadanía en general.

Destacar que GeoAraba se diseña respetando los estándares que permiten su interoperabilidad con otras IDEs y prestando especial atención a su usabilidad, con el objetivo de acercarlo a un mayor número de usuarios.

GeoAraba se encuentra integrado en la web de araba.eus y aglutina entre otros servicios: un visor geográfico, un catálogo de metadatos, una área de descargas y una página donde se recogen los diferentes servicios ofertados.

Se trata este de un proyecto vivo que va evolucionando continuamente, por lo que en 2022, y en coordinación con CCASA y otros Departamentos Forales, se ha continuado trabajando para la mejora tecnológica de la plataforma y para la coordinación, homogeneización y publicación de nueva información geográfica multisectorial.

Unido al proyecto GeoAraba, se ha continuado con una campaña de difusión que pretende acercar tanto la propia plataforma, como el concepto de utilizar la información geográfica a diferentes usuarios y con usos muy diversos. Para ello se ha continuado con un proyecto que se inició en 2021 y que ha llevado GeoAraba a varias ikastolas, con el objetivo de

helburuarekin.

Bestalde, artxibo historiko fotogrametrikoa mantentzeko eta hobetzeko, ortoargazki historiko bat egin da 1932-34 urteetan hartutako irudietan oinarrituta. Balio historiko eta kartografiko handiko dokumentua da, lurraldeko ortoargazkirik zaharrena delako eta Arabako ia geografia osoa hartzen duelako. Ezaugarri horiek direla eta, oso produktu erabilgarria da hainbat esparru eta erabiltzailerentzat.

Gardentasunari dagokionez, eta Arabako Foru Aldundiaren web orria sustatzen duen proiektu horizontalarekin koordinaturik, Hirigintzaren web orriaren edukiari eutsi zaio. Webgune horren bidez, herritarrak Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak sortutako informazio askotara sar daitezke.

Zerbitzuaren jarduera eremuari eragiten dioten araudiak egiteari dagokionez, bi foru dekretu onetsi direla nabarmendu behar da. Hauexek:

- 35/2022 Foru Dekretua, uztailaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea GeoAraba Arabako datu espazialen azpiegitura eta hori ezartzeko sailarteko batzorde bat sortzea.

- 44/2022 Foru Dekretua, urriaren 18ko Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Lurralde Informazioaren Erregistroa (ALIE) sortu eta arautzeari.

Azkenik, adierazi behar da ezen, zerbitzuaren filosofia sortzen den lurralde eta hirigintza informazio gehiena web orriaren bidez eta doan herritarren eskura jartzea bada ere, beharrezkoa dela arreta eta salmenta gune bat edukitzea, bertan herritarrek kontsultatu eta erosi ahal izan dezaten bere ezaugarri bereziengatik araba.eus webgunean eskuragarri ez dagoen dokumentazio historikoa.

2.- Hirigintza ekintza sustatzea.

acercar un nuevo modo de adquirir conocimiento geográfico a los escolares.

Por otra parte, en el ámbito del mantenimiento y mejora del archivo histórico fotogramétrico, se ha elaborado una ortofoto histórica a partir de imágenes tomadas en los años 1932-34. Se trata de un documento de un gran valor histórico y cartográfico al ser la ortofoto más antigua del Territorio y por cubrir prácticamente la totalidad de la geografía alavesa. Estas características la convierten en un producto muy útil para múltiples ámbitos y usuarios.

Por otra parte, en aras de la transparencia y coordinado con el proyecto horizontal que impulsa la página web de la Diputación Foral de Álava, se ha mantenido el contenido de la página web de Urbanismo. Esta página sirve de acceso para la ciudadanía a multitud de información generada por el Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

En relación con la elaboración de Normativas que afectan al ámbito de actuación del Servicio, cabe destacar la aprobación de dos Decretos Forales, los cuales se citan a continuación.

- Decreto Foral 35/2022, del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio. Aprobar la infraestructura de datos espaciales de Álava GeoAraba así como la creación de una comisión interdepartamental para su implantación.

- Decreto Foral 44/2022, del Consejo de Gobierno Foral de 18 de octubre. Aprobar la creación y regulación del Registro de Información Territorial del Territorio Histórico de Álava (RITA).

Por último, indicar que, aunque la filosofía del servicio es poner a disposición de la ciudadanía a través de la página web y de un modo gratuito la mayoría de la información territorial y urbanística que se genera, se hace necesario el mantenimiento del punto de atención y venta al público donde la ciudadanía puede consultar y comprar aquella documentación histórica, que por sus características especiales, no se encuentra disponible a través de la página web araba.eus.

2.- Fomento de la Acción Urbanística.

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 151600 LURRALDEARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA HIRIGINTZA EKINTZAREN SUSTAPENA

Azpiprograma honetan, arreta berezia ematen zaio hirigintza antolamendurako plan orokorrak eta haien ingurumen eraginaren ebaluazioak idazteko udalei diruz laguntzeko politikari. Guztira, hogeita zazpi dirulaguntza eman zaizkie udalerriei, haien hirigintza plan orokorren idazketa teknikoa finantzatzeko. Hain zuzen, honako udalerri hauek izan dira onuradunak: Zalduondo, Legutio, Leza, Iekora, Erriberabeitia, Navaridas, Zuia, Lapuebla de Labarca, Samaniego, Iruraiz-Gauna, Urizaharra, Donemiliaga eta Burgelu.

Horrez gain, azpiprograma honetan, hainbat ekintza biltzen dira, Arabako Lurralde Historikoko hirigintza ekintzaren zabalkundea egiteko, besteak beste, Arabako Foru Aldundiaren web orria eta bertako informazioa hobetzea, arreta berezia jarriz indarrean dagoen planeamendu guztia herritarren esku jartzeari, edo informazio hori eskaneatzea, hirigintza intereseko zenbait plano webean argitaratzeko. Horretarako, Arabako hirigintza plangintza digitalizatu egiten da, ondoren webgunean argitaratzeko. Hala, hirigintza informazioa denbora errealean egoten da eskuragarri webgunean.

2022ean onetsitako plangintzari dagokionez, honako hauen ebazpenak eman dira:

- Bernedoko HAPO.
- Lantziegoko eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrietako HAPOen bi aldaketa.
- Lezako, Dulantziko, Aiarako eta Donemiliagako udalerrietako arau subsidiarioen sei aldaketa.
- Zigoitia, Urizaharra, Guardia, Bernedo eta Bastidako sei plan berezi.

Lurzoru urbanizaezinean, 2022. urtean, hogeita bi baimen espediente zenbatu dira udalerri hauei dagokienez: Erriberagoitia (2), Iruña Oka (3), Armiñon, Agurain (2), Berantevilla (4), Donemiliaga, Lantaron, Amurrio, Guardia, Zuia, Arraia-Maeztu (2), Harana, Zigoitia eta Laudio.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 151600 INFORMACIÓN TERRITORIAL Y FOMENTO ACCIÓN URBANÍSTICA

Se presta especial atención a la política de subvenciones a los ayuntamientos para la redacción de los instrumentos de los Planes Generales de Ordenación Urbana y sus Evaluaciones Ambientales Estratégicas. En total se han concedido veintisiete subvenciones a los municipios para la financiación de la redacción técnica de los planes generales urbanísticos de dichos municipios, siendo en concreto los Ayuntamientos de Zalduondo, Legutio, Leza, Yécora, Ribera Baja, Navaridas, Zuia, Lapuebla de Labarca, Samaniego, Iruraiz-Gauna, Zalduondo, Peñacerrada, San Millán y Elburgo.

Con cargo a este subprograma se engloban diferentes acciones de difusión de la acción urbanística en el Territorio Histórico de Álava, entre ellos, la mejora de la web de la Diputación y de la información asociada a la misma, con especial mención a la puesta a disposición de la ciudadanía de todo el planeamiento en vigor o el escaneo para su publicación en la web de diversos planos de interés urbanístico. Al hilo de ello, cabe significar la actuación que se lleva a cabo consistente en la digitalización del planeamiento urbanístico de Álava para su posterior publicación en la web, de manera que la información urbanística se encuentra disponible en la web en tiempo real.

En lo que respecta al Planeamiento aprobado a lo largo del año 2022 se deben citar las siguientes resoluciones:

- Del PGOU de Bernedo.
- De dos modificaciones de PGOU de los municipios de Lanciego y Arratzua-Ubarrundia.
- De seis modificaciones de las Normas Subsidiarias de los municipios de Leza, Alegría-Dulantzi, Ayala y San Millán.
- De seis Planes Especiales en Zigoitia, Peñacerrada, Laguardia, Bernedo y Labastida.

En cuanto al número de expedientes de autorización en suelo no urbanizable (SNU) se cuantifican en el año 2022 en veintidós referidos a los términos municipales de Ribera Alta (2), Iruña de Oca (3), Armiñón, Salvatierra (2), Berantevilla (4), San Millán, Lantarón, Amurrio, Laguardia, Zuia, Arraia-

Maeztu (2), Valle de Arana, Zigoitiz y Llodio.

Planeamendu Erregistroaren aplikazio informatikoa jarri da martxan, hirigintza dokumentuak elektronikoki bideratzeko eta administrazio espedienteak autentikatzeko. 2023tik aurrera, Arabako udalek plataforma bat eskura izango dute dokumentu tekniko elektronikoak eduki eta Arabako Foru Aldundira bidaltzeko, behin betiko onets daitezen. Gainera, zehazki, 2022an, sei inskripzio izapidetu dira Gasteizko eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrietako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan (RAIU), eta 33 idazpen berri inskribatu dira Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan (RAP).

Se ha puesto en marcha la aplicación informática del Registro de Planeamiento para diligenciar electrónicamente los documentos urbanísticos así como autenticar los expedientes administrativos. A partir del año 2023 los ayuntamientos de Álava tendrán a su disposición la plataforma para disponer de documentos técnicos electrónicos y enviarlos a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva. Además, concretamente, en el año 2022, se han tramitado seis inscripciones en el Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico (RAIU) en los municipios de Vitoria-Gasteiz y Arratzua-Ubarrundia y, por otro lado, la inscripción de 33 nuevos asientos en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico de Álava (RAP).

Horrez gain, Arabako HAPOetarako araudi eta dokumentazio ereduak etengabe eguneratzen jarraitu da. Izan ere, erreferentziazko araudītzat erabiltzen dira, eta Arabako hirigintza planeamendua homogeneizatu eta normalizatzeko eskaintzen ditu AFAk.

También se ha continuado con las labores de actualización de la Normativa y documentación tipo para los PGOU alaveses que se utiliza como normativa de referencia y se ofrece desde la Diputación Foral de Álava, con el fin de homogeneizar y normalizar el planeamiento urbanístico alavés.

Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean Arabako Lurralde Historikoko lurralde plan partzialak berrikusteko izenpetutako hitzarmena betez, Arabako Errioxako LPP berrikusteko lanekin jarraitu da. Zehazki, aurrerapen dokumentua onetsi da, eta dokumentu horren parte hartze publikoko, administrazio barruko eta administrazioen arteko ekintzetan lan egiten jarraitu da. Bestalde, hitzarmen hori betez, Eusko Jaurlaritzak kontratatutako Araba Erdialdeko LPPren berrikuspenaren jarraipena egin da.

En cumplimiento del convenio firmado entre la Diputación Foral de Álava y el Gobierno Vasco para la revisión de los Planes Territoriales Parciales del Territorio Histórico de Álava, se han adjudicado continuado los trabajos de revisión del PTP de Rioja Alavesa. En concreto se ha aprobado el documento de Avance y se ha seguido trabajando en las acciones de participación pública, intra e interadministrativa del este documento. Por otra parte, también en ejecución de dicho convenio, se ha llevado a cabo el seguimiento de la revisión del PTP de Álava Central contratado por el Gobierno Vasco.

Halaber, Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialari dagokionez, plana behin betiko onesteko foru arauaren proiektua onetsi da.

Asimismo, en cuanto al Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas e Itinerarios Verdes, se ha aprobado el proyecto de Norma Foral para la aprobación definitiva del plan.

Nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetza Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren dokumentua idazteko.

Cabe destacar la colaboración con el Gobierno vasco en la redacción del documento de Plan Territorial Sectorial de Energías renovables.

Horrez gain, Azazetako Parke Eolikoaren Plan Berezia eta Laminoriako Plan Berezi Fotovoltaiko

También se ha iniciado la tramitación del Plan Especial del Parque Eólico de Azáceta y el Plan

eta Eolikoa izapidetzen hasi dira. Zerbitzuak Guardiako arau subsidiarioen aldaketa idatzi du, Guardiako lurzoru urbanizaezinean garbigune bat ezartzeko.

Arabako udalerrietako hirigintza plangintza hiri antolamendurako plan orokorrak idatziz Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legera moldatzeari dagokionez, hirigintza ekintza sustatu da, Arabako udalerrietako hirigintza planak idazteko aholkularitzaren eta sustapenaren bidez. Izan ere, gaur egun 15 udalerri moldatu dira legera jada, 33 udalerri beren HAPOa izapidetzen ari dira eta 3 udalerri soilik ez dira hasi oraindik HAPOa idazten.

2022. urtean, zabaldu egin da Arabako Foru Aldundiaren Iekorako hirigintza arloko ebazpen baten aurka EAEko Auzitegi Nagusian aurrez jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoa, eta amaitu da administrazioarekiko auzi prozedura bat Zuhatzan.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Ezarritako helburuen eta aurrekontu esleipenen aplikazioaren arabera, programaren betetze maila egokia izan dela esan daiteke, kasik % 100ekoa, hala ikuspuntu kualitatibotik nola kuantitatibotik, eta jarraipena eman zaio aurreko ekitaldietan egindako lanari.

especial fotovoltaico y eólico de Laminoria. El Servicio ha redactado la Modificación de las NNSS de Laguardia para la implantación de un garbigune en el SNU de Laguardia.

Por otra parte, y con respecto a la adaptación del planeamiento urbanístico de los municipios alaveses a la Ley 2/2006, del suelo y urbanismo, mediante la redacción de Planes Generales de Ordenación Urbana, se ha impulsado la acción urbanística a través del asesoramiento y fomento de la redacción de los planes urbanísticos municipales de Álava. De hecho en la actualidad, 15 municipios ya se han adaptado a la Ley, 33 se encuentran tramitando el PGOU del municipio y únicamente 3 municipios no han comenzado la redacción del PGOU.

Durante el año 2022 se ha ampliado un recurso contencioso-administrativo previamente interpuesto ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco contra una resolución de la Diputación Foral de Álava en materia de urbanismo en Yécora y ha terminado un procedimiento contencioso-administrativo en Zuaza.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El grado de cumplimiento del programa, de acuerdo con los objetivos establecidos y a tenor de las aplicaciones de las consignaciones presupuestarias, puede ser considerado como satisfactorio, cercano al 100%, tanto desde el punto de vista cuantitativo como cualitativo, continuando con el trabajo llevado en ejercicios anteriores.